Erabakiak

AMAIA UGARTE EIZMENDI
DBH 2. eta 3. kurtsoak 2. saria
Zizur Txikiko San Fermin Ikastola

Ni Jon naiz, 32 urte ditut eta violoncelloa jotzen dut euskadiko orkestran. Ez zait erraza egin honeraino iristea, lanpostu hau lortzea. Dena hasi zen eguna gogoratzen dut…:

—Zer da zarata hori? Jon, utziozu behingoz violoncelloa jotzeari! Buruko minez nago dagoeneko!

—Baina utziozu jotzen, Luisa! Gustoko baldin badu, zergatik ez?

—Gustoko du, hori badakit, ezin du instrumentu horretatik bost minutu baino gehiagoz aldendu. Baina ez du probetxuzko ezer egiten, eta horrela ez du ezer lortuko bizitzan! Hasi zaitez behingoz estudiatzen!

Celloa gorde eta nere logelara egin nuen ihes. Amaren sermoiak egunean sei aldiz entzuten nituen gutxienez, eta ez nuen berriro entzuteko batere asmorik. Mp3-a hartu eta ohean etzan nintzen. Musika entzutearekin batera lasaitzen hasi nintzen, baina betiko pentsamenduek ez zuten nere burutik alde egin nahi.

Nik musika nuen gustoko. Ez matematika, ez astronomia ez futbola. Musika. Baina dirudienez amak ez zuen ulertu nahi. Betidanik maite izan dut musika jotzea edo entzutea, eta handitan zertan lan egin nahi dudan galdetu didaten guztietan musikaria izan nahi dudala erantzun dut. Txikitan jendeak hori entzuten zidanean barre egiten zuen eta ez zion garrantzirik ematen. Baina arazoa kurtso berriaren hasierarekin batera etorri zen.

Institutuko azken urtean nengoen, batxillergoko bigarrenean hain zuzen eta jakina denez, horixe zen karrera unibertsitarioa aukeratzeko momentua. Horregatik egun batean gurasoak galdezka hasi zitzaizkidan, ea pentsatuta neukan zein izango zen nere lanbidea. Nik, harrituta, betidanik jakin izan dudala esan nien, musikaria. Beraiek bromak alde batera uzteko eskatu zidaten, eta serioski unibertsitatean zer ikasi nahi nuen esateko. Benetan serioski hari nintzela esan nien, ez nuela batere asmorik unibertsitatera joateko, kontserbatoriora baizik, goi mailako musika ikasketak egitera.

Gurasoek ez zuten momentu hartan onartu, eta oraindik onartu gabe jarraitzen zuten. Musikari izatea ez zela probetxuzkoa esaten zuten, ez zela ia dirurik irabazten eta ez dela «benetako» lanbidea. Ni askotan saiatu nintzen azaltzen hori ez zela horrela, beste edozein lanbide bezain garrantzitsua dela eta gainera nere helburua bizitzan ez dela diru asko irabaztea, egiten dudanarekin zoriontsu izatea baizik. Baina ez ninduten ulertzen. Ordutik institutuko ikasketei garrantzi ikaragarria ematen zieten eta egunero ari ziren ikasteko behin eta beriro errepikatuz. Amak ahal zuen guztietan kontatzen zituen nere «akatsak» ezagunen aurrean eta beti ari zen nitaz kexaka. Celloa jotzeari utziko banio biak asko poztuko liratekela uste nuen.

Baina gurasoak ez ziren aurka nituen bakarrak. Ia familia osoak uste zuen musikari izatea tontakeria bat dela. Gainera, hauekin ere beste arazo bat nuen: nere instrumendua. Ez zidaten niri inoiz ezer esan, baina batzutan entzun izan nituen hainbar komentario: «zergatik aukertu du violoncelloa? Akordeoia edo txistua askoz politagoak dira eta gainera euskaldunak!» edo «zergatik aukeratu duzue hain tristea den instrumentua? Horrekin ezin da abesti alairik jo». Egia da cello soinu melankoniatsuak jotzeko oso egokia dela, baina hori instrumendu oso espresiboa delako da eta neri ikaragarri gustatzen zitzaidan.

Zerbaitek nire burutazioetatik atera ninduen. Mp3-a itzali eta mugikorra bibratzen ari zela konturatu nintzen. Norbait deika hari zitzaidan.

—Bai, esan?

—Epa, Jon! Zer moduz?

Alazne zen, nere lagunik hoberena. Hamabi urterekin ezagutu nuen musika eskolan. Berak pianoa jotzen zuen eta elkarrekin joaten ginen solfeoko klaseetara. Oso ondo konpontzen ginen elkarrekin eta benetan konprenitzen ninduen bakarra zela uste dut, ez egoera berdinean egoteagatik, ez zelako horrela, baizik eta nik musika zenbat maite dudan ulertzen zuelako.

Egun hartan institutoan gertatu zitzaion historio dibertigarri bat kontatzeko deitu zidan. Horrela hizketan ari ginela ama nere gelan satu zen eta oihuka hasi zen:

—Baina zer da hau, Jon? Ikasten ari zinela uste nuen! Telefonoa eta musikaren eraginez galtzen duzun denborarekin, ez duzu izango ikasteko betarik! Eta aurten oso garrantzitsua da nota honak ateratzea! Ez dakit zer pentsatzen duzun…

Alazneri agur esan behar izan nion, amak oihuka jarraitzen baitzuen.

—Geroarte Jon. Geroago ikusiko dugu elkar solfeoko klasean. Agur!

Amak hizketan jarraitzen zuenean, celloa hartu eta etxetik alde egin nuen amari erantzunik eman gabe, kontserbatoriorantz abiatuz. Hau etxetik nahiko gertu zegoen, hamar minutu kostatzen zitzaidan normalean haraino iristea, violoncelloa gainean eraman baher nuela kontuan izanik.

Beroa egiten zuen kalean. Maiatzaren hasieran geunden jada. Ia kurtso osoa pasa zitzaidan konturatu gabe! Eta laster selektibitatea…

Kontserbatoriora iritsi nintzen. Violoncelloa gelara sartu eta bertan aurkitu nuen Maite, irakaslea. Irribarrez neretzako berriak zituela esan zidan.

Zure etorkizunerako oso garrantzitsua izan daitekeen gauza bat gertatu da.

—Zer gertatu da ba?

—Beno… Ezagutzen al duzu Pariseko violoncello jole gazteentzako lehiaketa?

—Bai, noski. Oso ezaguna da.

—Ba zure curriculuma bidali nien antolatzaileei, eta parte hartzeko gai zarela esan dute.

—Ni??? Baina ezin liteke! Ez horrenbesteko maila alturik!

—Ez da hori antolatzaileek pentsatzen dutena, ezta neuk ere. Nire ustez gai izango zinateke aktuazio on bat egiteko eta irabaziko ez bazenu, gutxienez esperientziak zerbaiterako balioko dizu. Ez al duzu gustoko ideia?

—Bai, gustoko bai, baina…

—Orduan ez dago gehiago hitzegin beharrik. Tori inskripizio paperak eta ekarri itzazu beteak hurrengo klaserako.

Maiteri agur esan eta Alaznerekin elkartu nintzen solfeo klasera joateko. Bidean lehiaketarena kontatu nion. Noski, ideia zoragarria iruditu zitzaion.

—Ala, Jon!! Hau aukera paregabea da zuk nahi duzuna egiteko! Lehiaketa hori irabaziz gero, Europako kontserbatorio ospetsuenetan ere onartua izango zinateke!

Horrela pasa zitzaigun hizketan klase guztia, irakasleak haserre begiradak botatzen zizkigun bitartean. Ondoren Alaznek agur esanez presaka alde egin zuen, beste klase batera joan behar baitzuen. Nik irribarretsu hartu nuen etxerako bidea.

Iristean gurasoen bila joan nintzen azkar eta berria kontatu nien. Behingoz gurasoak poztu egin zirela ematen zuen.

—Baina nola izan daiteke hori? Lehiaketa horretan musikari gazte hoberenek hartzen dute parte! –Amak.

—Beno, irakasleak benetan parte hartzeko gomendatu dit.

—Ene ba! horrek benetan trebea zarela esan nahi du! –Aitak.

—Noiz izango da lehiaketa?

—Ekainaren hama…

Momentu horretan ikusi nuen. Nola ez nintzen lehenago ohartu? Amak berriro galdetu zuen:

—Ekainaren zer?

—E… ekainaren … hamabostean –erantzun nuen ahots zoliz. Orduan gurasoak ere ohartu ziren. Isiluna txiki baten ondoren aitak zera esan zuen:

—Ez zara joango.

—Baina aita…

—Ez zara joango. Badakit lehiaketa hori garrantzitsua dela, baina ez selektibitatea baino gehiago eta hamabosta selektibitate eguna da.

—Baina aita, lehiaketa irabaziko banu…

—Eta irabaziko ez bazenu? Zer gertatuko litzateke orduan? Selektibitaterik gabe unibertsitatean sartzeko aukerarik gabe geldituko zinateke eta zer egingo zenuke orduan? Ikasketak alde batera utzi betiko musika eskola ziztrinean ikasten jarraitzeko? Ez dut onartuko zure etorkizuna horrenbeste hondatu dezakeen erabakirik. Ulertu al duzu?

—Bai, aita.

Minutu bakar batzuetan nere ilusio guztiak zapuztuta. Dena data madarikatu batengatik. Zergatik suertatu behar ziren bi gauzak egun berean? Momentu hartan esperantza guztiak galdu nituen. Eta horrela izango zen oraindik Alaznerengatik izan ez balitz.

Bi egun beranduago gurasoekin gertatutakoa eta daten arazoa kontatu nion. Bera hasieran ixilik geratu zen, baina gero zera esan zidan:

—Lehiaketan parte har ezazu. Benetan nahi duzuna bada egin beharko zenukeela uste dut. Gainera, bestela bizitza osoan zehar damutuko zara beste erabakia hartu izanaz.

—Baina Alazne, gurasoek ez didate uzten eta baimenik gabe…

—Jon, heldua zara dagoeneko, 18 urte dituzu eta inskripzio paperak inoren baimenik gabe bete ditzakezu. Musikari izan nahi baduzu ezin diozu aukera honi alde egiten utzi.

Alazneri esker aldatu zen nere etorkizuna. Berak ulertarazi zidan bizitzan zoriontsu izateko zeure buruarekin pozik egon behar zarela, eta nahi duguna lortzeko saiatu egin behar garela, ez lortzeko arriskua egon arren.

Etxera itzultzean lehiaketako paperak atera, bete eta bidali egin nituen. Gurasoei ez nien ezer kontatu lehiaketaren bezpera arte. Momentu hartan esan nien ez nuela selektibitatea egingo eta Pariserantz atera behar nintzela. Beraiek ez zuten batere ondo hartu eta ni ikustera ez zirela joango esan zuten.

Lehiaketa hasteko zorian zegoenean gurasoetaz oroitu nintzen eta benetan sentitu nuen haiek ni ikustera ez etortzea. Beraiek ziurtasuna ematen zidaten eta ez egoteak kontrako efektua sortzen zidan.

Lehenengo obra jo nuen, baita gaizki jo ere. Ez zen izan desastre hutsa, baina urduritasuna asko nabaritu zitzaidan. Bigarrena hastear nengoela pertsona batzuk ikusi nituen ikusleen artean eskuarekin agurtzen. Nire gurasoak ziren! Ezin dut deskribatu nolako poztasuna eta lasaitasuna sentitu nituen momentu harta. Azkenean ulertu zituzten nire sentimenduak eta han zeuden animatzeko prest. Horrek indar izugarria eman zidan, eta bigarren obra zoragarri atera zitzaidan.

Ez nuen egun hartan lehiaketarik irabazi. Beste batek eraman zuen saria, baina nik sari pertsonala nuen: gurasoak nire alde nituen.

Handik aurrera musika ikasten jarraitu nuen, gero eta hobeto joz, azkenik Euskadiko Orkestrako oposizioak gainditu nituen arte.

Hori izan da nire istorioa. Luzea, korapilatsua baina amaiera zoriontsuarekin, ni orain oso zoriontsua bainaiz.